

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

AGENDA 21eko Foroa

2009ko otsailaren 26an egindako tailerraren akta

Legazpiko udaletxean

18:30etik 20:00etara.

● Tailerrak eman duena

Gaurko tailerra trinkoa eta aberatsa izan da guztiontzat eta gaurkoarekin bukatutzat emango dugu oraingoz mugikortasunaren kapitulua!



Aurreko tailerrean (urtarrilaren 29an) aztertu genuen gaia eta gaur ere gai berdina landu dugu. Izan ere, mugikortasuna Legazpin pil-pilean dagoen gaia da. Udalak bultzatu duen mugikortasun iraunkorreko planean jasotako jarduketek, eta batez ere bidegorria egiteko lanek zalaparta, gorabeherak eta aurkako eta aldeko iritziak sortu dituzte herriko bizilagunen artean; baita gure Foroan ere.



Plan hori egiten buru-belarri aritu den talde gisa, aurrera eramatearen aldeko apustua egiten dugu; zalantzak, ñabardurak eta oztopoak egon arren, Legazpi hobetzeko bide bat dela uste dugu eta horrek gure bizilagunen eta oinezkoen eta bizikletarien bizi-kalitatea hobetzea ekarriko duela pentsatzen dugu.

Eta helburu horrek eraman gaitu gaurkoan bidegorriaren erabilera sustatzeko proposamenak botatzera. Bidegorria da, momentuz, Planak eman duen jarduketa nagusia.

Ekarpen horrekin, Foroak epe baterako aparkatu egingo du mugikortasunaren gaia eta bestelako gaiak landuko ditu. Beraz, Udalari emango diogu lekukoa eta, gure laguntzarekin, Legazpiko mugikortasun iraunkorrerako proposamenak egi bihurtzen jarraitzen animatzen dugu. Ikus ditzagun jarraian, guztiaren zehaztasunak, urratsez urrats.

● Pertsonak, parte hartu duen taldea

Legazpiko Agenda 21eko Foroa arro dago bertako parte-hartzaileez; Foroa osatzen duten kideak dira taldeari izaera eta balioa ematen diotenak. Talde egonkorra dugu, anitza eta, batik bat, konpromiso-hartzailea; eta gaur garbi azaldu diguzue egiazko taldea dela, elkarguneak bilatzen dituen eta eguneroko gaiak aztertzeak eskatzen duen gatz eta umorea erabiltzen dakiena.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Gaurko tailerra aberatsa, trinkoa, baikorra eta apartekoa izan delako,.... **eskerrik asko guztioi!** Guztion artean aurkitu ahal izan dugu helmugara iristeko bidezidor hobereana!

Bixente Garmendia ♦ Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) ♦ Fernando Martínez de Albeniz ♦ Miriam Orozko ♦ Iñaki Mauleon (Domingo Agirre Ikastetxea) ♦ Jose Luis Cid ♦ Sole Arostegi ♦ Arantxa Segurola (Haztegi Ikastola) ♦ Iban Odriozola ♦ Ane Odriozola ♦ Eneko Aseginolaza ♦ Manuel Fernandez eta Jose Ramon Hernandez (Nagusilan) ♦ Eugenio Gil ♦ Jose Luis Ugarte ♦ Arantxa Lobo ♦ Montse Vallejo ♦ Martin Gonzalez ♦ M^a Cruz Alustiza ♦ Agurtzane Elustondo (Lenbur) ♦ Txomin Casado ♦ Junkal Fernandez ♦ Valentin Garcia ♦ Casimiro Bezunartea ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Jon Erramun Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

● Aztertu diren gaiak, banan-banan

¿Zer egin dezakegu, Legazpin herri barruko bidegorri berriaren erabilera bultzatzeko?

Hauxe izan da denon artean erantzuten saiatu garen galdera nagusia (3. puntuan jasota geratu da gaiaren garapena). Baina lan horretan murgildu aurretik, hainbat hausnarketa eta iruzkin sortu dira taldean eta horiek 1. eta 2. puntuan jaso ditugu.

1. Udal konpromiso sendoa, Mugikortasun Iraunkorreko Planarekiko

Foroko hainbat kidek mugikortasun iraunkorreko Planaren jarduketan garapenarekiko duten jarrera kritikoa azaldu digute (adibidez, bidegorriaren zabalera hainbat tartetan; horrela zenbait tokitan bidegorriaren zabalera ez da 2,20 metrora iristen, leiho-isurkia barne). Zehazki Fernando Martinez de Albenizek Laubide - Patrizio Etxebarria arteko bidegorri zatia egokia eta lehentasunezkoa dela dio; baina aldiz uste du Laubide-Aiztonaga arteko ibilbidea birplanteatu egin beharko litzatekeela.

Sote Plazaola Legazpiko alkateak, iritzi eta jarrera desberdinei erantzunez, Udalak Plan horrekiko konpromisoa berresten duela esan du. Gogora ekarri du Plan hori Foro honetan landu eta bultzatu dela. Planak, era berean, udaletxeko talde politiko guztien oniritzia du. Azkenik, Planak udalerraren iraunkortasun-helburuei erantzuten die (eta helburu horiek bestelako sailetatik ere lantzen dira, hala nola, klimaren aldaketa, energia-eraginkortasuna, eraikitzeke irizpideak,....)

Ikuspuntu horretatik, Udalak eman beharreko garrantzia emango die Planaren garapenetik sortuko diren jarduketak guztiei. Horien artean dago bidegorria. Herri barruko bidegorria egitea eta martxan jartzea korapilatsua izaten ari da. Arazo desberdinak sortu dira: euriak eragina izan du egin beharreko lanetan (ezinezkoa izan da bidegorria margotzea); kanpoko finantzazioa (diru-laguntza jaso nahi genuenez, urtea amaitu baino lehen egin behar izan da lana eta agian presa handiarekin); eraso ugari eman dira eta



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

pibot asko desagertu dira; egokitzapen-lanetan gauza asko geratzen dira konpontzeko (puntu arriskutsuak kendu behar dira, hainbat tartetan zorua konpondu behar da,...); Legazpiko hainbat bizilagunengan jarrera zakarrak antzeman ditugu (adibidez, autoarekin bidegorria okupatuz,...)

Baina, helburua poliki-poliki mugikortasun iraunkorreko Planean jasotako jarduketak guztiak betetzen joatea da (beti ere, dagoen aurrekontuaren eta finantziazioaren arabera). Adi egon beharko dugu ematen diren arazoak antzemateko eta konpondu egin beharko ditugu sortuko diren akatsak. Azkenik, hartu beharreko neurriak hartu beharko ditugu bidegorriaren bilakaera egokia bermatuta gera dadin (udaltzainek bide-diziplina zaindu beharko dute adibidez, autoek ez dezaten bidegorria okupatu)

Azkeneko ideia bat:

Esan dugun legez, sarritan eremu publikoan oinezkoei eta bizikletariei lehentasuna ematearen aldeko apustua egitea gauza berria da eta aitzindaria Legazpik dituen ezaugarriak aintzat hartuta; neurri batean, ibilgailu pribatuaren kulturaren aurka joatea da.

Horregatik, mugikortasun iraunkorreko planean jasotakoa gauzatzean normala da beldurrak, zalantzak, kontrako jarrerak,... sortzea eta taldeak ulertzen du hori.

Azken finean, etorkizunera begira pentsatzeak, diseinatzeak eta jarduteak zalantza sortzen du. Oro har, ez digute **zalantza hori sormenetik kudeatzen** irakatsi. Hona hemen gaiari buruz link interesgarria, hausnartu eta ikas dezagun!<http://video.google.com/videoplay?docid=-9133846744370459335&hl=es>

2. Zehaztapen bat bidegorriari buruz

Inmak bidegorriari buruzko gai bat argitu nahi izan digu.

- Lehenbizi, Gipuzkoako Foru Aldundiaren irizpideetan oinarrituta eta hainbat irudiren laguntzarekin, Inmak **bidegorri bat sortzeko dauden aukera desberdinak** erakutsi dizkigu, beti ere bidegorria motordun gabeko ibilgailuentzako komunikabide gisa ulertuta. Laburtuz, hauek dira aukera batzuk:
 - Bizikleta pista: pista horiek oinezkoentzat eta bizikletarientzat dira eta autoen pistetatik ongi bereizita daude, zintarriekin, espaloiarekin, lorategiarekin,....
 - Bidegorria: erabilera desberdinak zoruan ezarritako marra batekin bakarrik bereizten dira.
 - Babestutako bidegorria (Legazpirako aukeratu den irtenbidea): erabilera desberdinak seinale horizontalen bidez (marrak) eta bestelako elementuekin (pibotak) bereizten dira.
 - Oinezkoentzako eta bizikletarientzako kaleak, konpartitzen diren espazioak dira (adibidez, Donostian dauden oinezkoentzako kaleak edo Legazpitik Zumarragara doan bidea).

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Beraz, sistema desberdinak egon daitezke (eremu-behar desberdinekin, aurrekontu desberdinarekin,...) eta Legazpin zonalde zehatz horretarako egokien ikusi den sistemaren alde egin da: babestutako bidegorria.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Gipuzkoako Foru Aldundiko "Bizikletaz" orrialdea kontsulta daiteke: http://www.gipuzkoabizikletaz.net/index_es.php?lang=es


3. Ondoko galderari erantzunez: Zer egin dezakegu Legazpiko herritarrek bidegorria erabil dezaten bultzatzeko?

Ideiak eta erantzunak jaso ditugu!

Eta horretarako irudimena erabili dugu eta 2014an, bost urte barru, Legazpiko bidegorria nola ikusi nahiko genukeen irudikatu dugu.

Nola ikusi nahiko genuke Legazpiko bidegorria datorren 2014an? Honela irudikatu dugu...

- Erosketak bizikletan egingo duen jendearekin.
- Bizikletaz beteta.
- Neska-mutikoak eskolara bizikletan joaten. Eta gurasoak seme-alaba txikiak ere bizikletan eramaten.
- Seguru.
- 70 urteko emakumeak bizikletan ibiltzen.
- Jendea normal jantzita bizikletan.
- Erabileren arteko errespetua eta elkarbizitza (oinezkoak, bizikletariak).
- Pibotekin.
- Legazpi eredu izan dadila beste udalerrientzako.
- Batzuk patinete elektrikoak erabiliko dituzte.
- Erdialdea oinezkoentzat izango da eta erabilera desberdinak elkarbizitzan.
- Bizikletak giltzarraparik gabe eta aparkatzeko leku asko.



Irudi horrekin gure buruetan, eta talde gisa dugun sormena abiapuntutzat hartuta, **zein proposamen, idei, neurri,.... bururatzen zaizkigu legazpiarrek bidegorria erabil dezaten bultzatzeko?**

Talde gisa gure asmo hoberenak jarri ditugu eta emaitza onak jaso ditugu,... Ikus ditzagun emaitza horiek!

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

EREMUA:	Proposamenak, ekintzak, Legazpin bidegorriaren erabilera bultzatzeko
<p>Bidegorria mugikortasuneko azpiegitura gisa behar bezala EGOKITZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ondoko puntuetan, bidegorriaren ibilbidea edo konfigurazioa hobetzeko aukerak aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> • Kurba San Ignazio 37an (Bodega Riojanaren parean). • Gaztetxeko aldapa behera (gaia Gaztetxeko gazteekin landu daiteke, aldapa horretan autoa modu txarrean aparka ez dezaten) • Zaharren egoitzara igotzeko aldapa (autobusak bidegorriraino sartzen dira) • Ahal bezain pronto, ibaiaren parean doan bidegorria egin. • Bidegorrian dauden hainbat oztopo (espaloi ondoan dauden hustubideak, erregistro-estalkiak,...) arriskutsuak dira bizikletarientzako. • Ahal denean, bidegorriaren zabalera gutxieneko zabalera egokituko dela bermatu behar da. • Izkin arriskutsuak saihestu behar dira. • Lubeta San Ignazio auzoan. • Bidegorriaren ibilbidean zehar, aparkalekuak egokitu behar dira, aparkaleku ugari eta seguruak; gauza bera enpresetan, bestelako zentroetan,.... • Pibotak mantenduko dira, segurtasunagatik. • Puntu zehatzetan, zamalanetarako guneak sortzeko aukera aztertu behar da (adibidez, Aizkorri kalean). • Hainbat bide-tartetan zorua konpondu behar da (zuloak dauden tokietan,...) • Autoak aparkatzeko tokiak egokitzea, bidegorriarekin lotutako guneetan.
<p>INFORMAZIOA bidegorriari buruz</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bidegorriaren eraztuna zehatz-mehatz azalduko duen informazio-kanpaina eraginkorra. Kanpaina hori leku desberdinetan burutu beharko da: ikastetxeetan, herrian oro har, enpresetan, udal-zentroetan (kiroldegia, gaztetxea,...). Horretarako plano handi bat erabil daiteke eta ibilbidearen leku zehatzetan agerian jarri. Kanpaina horretan koordinatu egin beharko dira bizikletaren aukera eta dagoen garraino publikoaren aukera desberdinak. • Pibotak eskaintzen duten segurtasuna aztertu eta horren gaineko informazioa eman; arriskutsuak al dira lurzoruan kokatutako pibota horizontalak? Finkatu al daitezke moduren batean? • Asteburu batzuetan bizikletan egingo diren txangoak eta paseoak antola daitezke.
<p>Erabilerak ARAUTZEA eta seinaleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bidegorria erabiltzeko arauak (bizikletarientzat eta oinezkoentzat) ezarri eta zabaldu: ohitura onak, kaskoa erabiltzea,.... • Garajeetako irteerak ongi markatu, segurtasuna bermatuz. • Ibilbidean jarriko diren seinaleetan, gizalegezko jokabideak adieraztea (bizikletan goazenerako).

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

EREMUA:	Proposamenak, ekintzak, Legazpin bidegorriaren erabilera bultzatzeko
KONTZIENTZIATZEA, SENTSIBILIZAZIOA "mentalitatea" aldatzeko	<ul style="list-style-type: none"> • Bizikletaren erabilerak dakartzan onurak azaltzea: osasunean, estetikan,... Adibidez, osasun-gaietan aditua den pertsonaren bat gonbidatuz. • Bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroak antolatzea; adin eta pertsona guztientzat. • "Eskolara bizikletan" edo antzeko ekimenak bultzatzea, herriko ikastetxeekin elkar lanean. • Bizikleta elektrikoek erakusketa bat antolatzea (dinamoekin funtzionatzen dutenak), Donostian <i>Kalapie</i> taldeak prestatu duenaren antzekoa. • Gaiari buruz dauden aldizkarietan parte hartzea (adibidez, <i>Kalapie</i> taldeak duen horretan). • Komunikazio kanpaina indartsu baten barruan, adibidez, bizikletan jartzeko txirrinak oparitzea. • Espazio publikoa demokratizatu egin behar dela azpimarratu (gaur egun autoa da espazio horretan garaile)
Hirigintza PLANIFIKAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkizuneko planean oinezkoen eta bizikletarien mugikortasunerako irizpideak sartu.
BESTELAKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Hainbat eremutan autoen abiadura mugatu, oinezkoen eta bizikletarien segurtasuna bermatzeko. • Ibilgailuen gaineko zerga-politika berrikusi, adibidez, ibilgailuen gaineko zerga aldatuz (potentzia handiko ibilgailuei zerga handiagoa ezarriz)

Alajaina! Ez dago gaizki bidegorriaren erabilera sustatzeko lanekin hasteko! Udalak hartu ditu oharrak eta emango diren hurrengo urratsen berri emango digu... Gainera, ez dugu ideia horiekin bukatzen! Epe bat igaro ondoren, berriro helduko diogu gaiari. Bestetik, bidegorriaren erabilerak sortuko ditu behar eta proposamen berriak. Baietz hala izan!

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● Bestelako berriak

Ohi bezala, minutu batzuk gorde ditugu "berrietarako". Inmak, Agenda 21ean landu diren eta joan den 2009ko otsailaren 25ean egin zen Osoko Bilkuran onartu ziren bi gairen berri eman digu.

- Udalak **klima-aldaketaren aurka borrokatzeko udal Ordenantza** onartu du. Ordenantzaren helburua Udalak gai horri buruz dituen konpromisoak hartzea da (konpromiso horiei bestelako erakunde edo agenten konpromisoak gehituko zaizkie eta baita gutako bakoitzak dituen konpromisoak ere). Horretarako, honako jarduketak burutuko dira:
 - Udalaren jardueraren ondorioz, eta Legazpiko udalerrian oro har, airera botatzen den CO₂ isurpenen inbentarioa egin.
 - Inbentarioak emango duenaren arabera, jarduteko plan bat egingo da gaien adituak diren pertsonekin.
- Modu berean, Osoko Bilkurak **bidezko merkataritzako produktuak sustatzeko udal konpromisoa** hartu du; hor sartzen da:
 - Udal barnean produktu horien erabilera sustatzea.
 - Klean, herriko dendetan,... bidezko merkataritzako produktuen erabilera sustatuko duten ekintzen antolaketa bultzatuko du Udalak.

Berri onak dira horiek. Ekintza iraunkorra finkatzen dute eta Agenda 21eko Tokiko III. Ekintza-planean hartutako konpromisoak betetzen dituzte. **Zorionak!**

● Eta horrekin... hurrengo tailerra egingo dugun egunera arte agurtzen gara!

Gure urteko egutegiaren arabera, egun hori **martxoaren 26a** da. Egun horretan Legazpiko merkataritza biziberritzeko plana egiteari buruz hitz egingo dugu. Beraz, gai horri buruz hausnartzen has gaitezke. Interesgarria, ez?

Tira ba, udaberriari atea ireki ondoren elkartuko gara berriro (hori laster izatea espero dugu! ea behingoz bidegorria martxan jartzen dugun) eta eskerrik asko!

Ordura arte, mila esker eta izan ongi!
Eta anima gaitezen bidegorria erabiltzera!

